



## **PLAZAOLAKO VIII. MENDI BIZIKLETA ETA V. MARATOI ERDIA**

Igandean, irailaren 18an Plazaola Natur Bidetik antolatu ziren lau lasterketetan 350 parte hartzaile baino gehiago izan genituen, eguraldiak gehiegi lagundu ez zigun arren. Aurten, Plazaola Partzuergo Turistikoak, Lekunberriko, Larraungo, Leitzako eta Andoaingo udalaren laguntzarekin eta Araitz, Betelu, Areso, Larraun eta Lekunberriko Kirol Komunitatearekin, Plazaola Natur bideko **VIII. Mendi bizikleta martxa** eta **V. Maratoi Erdia** antolatu zuen. Ekitaldi hau aurrera eramateko ezinbestekoa da Nafarroako Gobernuko Turismo Saileko laguntza.

Egun hau, Europako natur bideen eguneko Mugimendu Astearen barruan dago, eta Espainiako Trenbide fundazioaren eta Europako Natur bideen elkarteen laguntzarekin kontaktzen du.

Lasterketarik beteranoenak, Mendi Bizikleta Martxa, parte hartzaile dezente izan zituen, nahiz eta eguraldi aurreikuspenak oso onak ez izan.

Maratoi erdian ere, ohikoa den bezala, partehartzea haundia izan zen. Natur bidean ibili zirenei goiz guztian zehar euriak ez zien eutsi.

### **VIII. Mendi Bizikleta Martxa**

Mendi Bizikleta Martxan, adin ezberdineko 270 pertsona baino gehiagok parte hartu zuten.

#### Irteera:

- 150 pertsona Andoaindik atera ziren (40 km) goizeko 10:00etan
- 107 bat txirrindulari Leitzatik (15 km) goizeko 11.30etan



- o 14 hurrek parte hartu zuten haur-martxan (4 Km) pailazoen laguntzarekin, goizeko 12.30etan

## V. Maratoi Erdia

Aurten, 135 lasterkari atera ziren goizeko 9.30etan Leitzatik, nahiz eta 150ek izen ematea egin zuten aurreko egunetan. Ibilbidea, Leitzako Urto auzoan hasi eta Lekunberrirainokoa zen, horrela 21 Km Plazaola Natur Bidetik eginez.

### MARATOI ERDIAREN SAILKAPENA

Gizonezkoak		
	Lasterkaria	Denbora
1	Roberto Rubén Jiménez Gallego	1:16:25
2	Asier Urdampilleta Lizardi	1:16:38
3	Gonzalo Sukunza Gorritxo	1:16:46
4	Jonan Rodriguez Bakeriza	1:16:52
5	Alfonso Serrano Reinaldos	1:17:23
6	Unai Señorán Bengoa	1:17:40
7	Aimar Agirresarobe Lizarra	1:17:53

Emakumezkoak		
	Lasterkaria	Denbora
1	Uxue Murolas Aguerri	1:35:44
2	Irache Castillo Ajona	1:42:53
3	Mari Carmen Olaso Espeso	1:43:34
4	Marina Gómez Ordóñez	1:46:10
5	Ana Alzugarai Garcia	1:48:16
6	Ana Lirón De Robles Adsuar	2:00:14
7		

Lasterketan zehar hainbat horniketa leku kokatu zituzten eta lasterketa amaitu zenean, ogitartekoak, yogurrak, zukuak, fruta, gozokiak, ura... banatu zituzten Lekunberriko geltokian.

Kolaboratu zuten: FRUTAS DIONI, AGROZUMOS S.A. , MANANTIALES DE BETELU S.A., LACTURALE, DIARIO DE NOTICIAS, CAJA RURAL, KAIKU eta CAN FUNDAZIOAK. Oroitzapen



modura kamiseta bat banatu zen eta 20 sari baino gehiagoko zozketa burutu zen; egonaldia landa turismoan, menu dastaketak, kamixetak, bideokamara bat...

- Mendikuloko koba (Astitz)
- Mugiroko benta (Mugiro)
- Bikain Gaztandegia (Etxarri)
- Artzeluze Zur lanak - Tallas (Lekunberri)
- Kristina Saralegi (Leitza)
- Errotalde Bideokluba (Lekunberri)
- Ayestaran Hotela (Lekunberri)

Guzti hau Partzuergoko kideek eta kolaboratzaileek eskaini zuten. Lasterketa Del Olmo Anbulantziengatik babestuak egon zen arren, nabarmendu behar da lasterketan zehar ez zela ezbehar larriarik egon.

Aurtengo lasterketan ere erabili zen: **Txip-en instalazioa** lasterkarien denbora neurtzeko eta **web orri berria**, parte hartzaileei gauzak errazteko, baia urre-izena ematean eta baita ere parte hartzaileak informatuak izateko: [www.plazaolakirolak.org](http://www.plazaolakirolak.org)

### **UITZIKO TUNELA**

Aurten, Uitziko tunela berreskuratuta eta erabat egokituta egon da ekitaldirako, 2011ko martxoan ospatutako inaugurazioa ezkeroztik.

Gogoan hartu behar da, 2680 metroko tunel hau izan dela erronkarik handiena natur-bidearen egokipenerako. Gaur egun, Nafar Gobernuaren Turismo Sailak lagunduta



berreskuratuta dago, burutze-aurrekontuen %60 betez, bai eta C.A.N. fundazioko 10.983. proiektua bozkatu dutenen laguntzari esker ere. Plazaolako lagunei proiektu honi eusteko eskatzen jarraitzen zaie, plurianuala delako eta bertan ekintza ezberdinak sartzen baitira (segurtasuna, argiztapena...).